

ARROZAREN JATORRIA

Indonesian, Java uhartean, Shiba jainkoak zerbait ederra sortu nahi zuen, ederra kanpotik eta barrutik. Beraz, neska bat sortu zuen eta berarekin ezkontzeko eskatu zion. Retuadumillak, zalantzak zituen eta beste jainkoei iritzia eskatu zien. Hauek berarekin ezkontzeko esan zioten eta neskatxak baiezkua eman zion Shibari. Baina horretarako baldintza bat jarri zion, jaki gozoena ekartzeko.

Shibak Retuadumillarekin ezkondu nahi zuenez bere bidaiari ekin zion eta munduko bazter guztiak miatu zituen jaki gozoenaren bila. Mota guztietako frutak, haragiak, arrainak, barazkiak...probatu zituen baina ez zegoen bat ere hain goxoa zenik. Horregatik zerbait berezia egitea pentsatu zuen. Zuhaitz eta zuhaixka desberdinak hartu zituen eta bere lorategian landatu zituen. Denek fruitua eman zutenean nahasketa bat egin zuen eta hazi berezi bat sortu zuen. Hazia lurrean landatu baina ez zen ezer ateratzen. Retuadumilla gero eta tristeago zegoen eta negarrez ematen zuen eguna.

Denbora aurrera zioan baina ez zegoen ezer berririk lorategian. Shibak ideia bat izan zuen. Retuadumillaren edertasuna kontuan izanik, bere negarra ontzi batean jaso zuen eta haziaren gainean bota zuen, mirari baten zain. Bertatik landare berri bat hasi zen, granu txiki zuri ugariak zituena. Hura neskatoaren poza, ezin pozago zegoen landare hartatik ateratako jakiarekin. Eta bere lore gogokoenaren izena hartuz "arroza" jarri zion izena.

Ezkontza zoragarria ospatu zuten eta bazkari paregabea antolatu zuten, paella bikaina! eta momentu horretatik aurrera arroza jakirik preziatuena bilakatu zen herrialdean.